

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak Dermatologiako diagnostikoak arinduko ditu lehen mailako arretan espezialistari argazkiak bidaliz

*Proiektu pilotua abian jarri dute Mendillorri, Lizarra, Tafalla, Arrotxapea eta Atarrabiako osasun-zentroetan, eta aurrez aurrekoa ez den kontsulta arteko sisteman oinarritzen da*

Asteazkena, 2016.eko irailak 14

Osasun Departamentuak "Teledermatologia" proiektu bat abian jarri du eta, haren bidez, lehen mailako arretako dermatologiako gaixotasunen diagnostikoa hobetu eta arinduko da; horretarako, osasun-zentroetako profesionalak Dermatologiako espezialistari argazkiak bidaliko dizkiete balorazioa egin dezaten.



Mediku bat paziente bat artatzen.

Proiektua gaur aurkeztu dio Gobernuari Dominguez kontseilariak, eta fase pilotuan hasi zen iragan ekainean bost osasun-zentrotan: Mendillorri, Lizarra, Tafalla, Arrotxapea eta Atarrabian, emaitza onekin. Proiektu horretan, osasun-zentroko profesionalak argazki-makina batekin irudi bat sortu dezake eta, aurrez aurrekoa ez den kontsulta arteko sistema baten bidez, Dermatologiako espezialistari igortzen zaio. Hark, irudia baloratu ondoren, lehen mailako arretako medikuarekin harremanetan jar daiteke kontsulta horretan bertan iruzkin bat eginez edo txosten bat bidaliz. Fase pilotu honek 2.100 euroko kostua du, bost argazki-kamera erosteko xahutu direnak.

2016ko ekainaren 22tik irailaren 22ra, aurrez aurrezkoak ez diren 108 kontsulta egin dira. Haietatik, 43 kasutan argazkia txertatu zen. Kontsulta egin ondoren, kasuen % 65i jarraipena lehen mailako arretako medikuak egin zion pazienteak arreta espezializaturara bidaltzeko beharrik izan gabe.

Proiektu hori beste osasun-zentro batzuetara eta Nafarroako beste zonalde batzuetara zabalduko dela aurreikusten da, hasiera batean Tuterako aldeko osasun-zentro batera. Urri amaierarako aurreikusitako proiektua ebaluatu ondoren, gainerako oinarritzko zonaldeetara zabaltzeko kronograma planifikatuko da.

Gainera, argazki-kamerak dituztela baliatuz, "teledermatologia" garatzen ari diren osasun-zentro pilotuek aurrez aurrezkoak ez diren

konsulta arteko sistema, argazkiekin, irudiak diagnostikoan eta lesioen jarraipenean balio garrantzitsua ematen duten espezialitateetara zabaltzea aurreikusten dute: kirurgia baskularrean, plastikoan eta aurpegi-masailetak kirurgian, adibidez.

### **"Teledermatologia"-ren abantailak**

"Teledermatologia"-ri esker, laguntzaren kalitatea hobetzen da, eta lesio aktiboaren unean espezialistaren balorazioa egin daiteke. Halaber, pazienteak arreta espezializatura alferrik joatea ekiditen da, eta irisgarritasuna hobetzea. Proiektu honek lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko medikuen arteko komunikazioa ere sustatzen du; horrez gain, prestakuntzaren etengabeko hobekuntza bultzatzen du eta lehen mailako arretako medikuen erabakitzeko gaitasuna arreta espezializatutik babesa emateko zirkuitu arin eta eskuragarrien bidez. Azkenik, epe luzeko itxarote zerrendak hobetzen lagunduko du.

Dermatologiako arreta integratuko lantalde tekniko bat lanean ari da lehen mailako arreta eta arreta espezializatuaren artean pazienteak bideratzeko irizpideak egokitzeko, eta "teledermatologia" bidez artatuko diren dermatologiako patologia-motak zehazteko.

### **Aurrez aurrekoak ez diren konsulta arteko sistema, indarra hartzen ari den jardunbidea**

"Teledermatologia"-ren proiektua lehen mailako arreta eta arreta espezializatuaren artean aurrez aurrekoak ez diren kontsultaren garapenean sartzen da, eta aldi berean Paziente Kronikoaren eta Patologia Anitzeko Pazientearen Estrategiaren barnean dago.

Jardunbide horrek lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko medikuen artean komunikazioa izateko aukera ematen du. Komunikatzeko era hori espezialitate ezberdinen artean zabaltzeko aukera aztertzen ari dira (ospitale bereko espezialitateen artean nahiz Lizarra eta Tuterako ospitaleetako espezialitateetan Nafarroako Ospitaleguneko erreferentziazko espezialitateekin), bai eta erizaintzako profesionalen artean ere (interesgarriak gerta daitezkeenak zaurien, ultzeren... jarraipena egiteko orduan).

Aurrez aurrekoak ez diren konsulta arteko sistema indarra hartzen ari den jarduera da. 2015ean osasun-sare publikoko profesionalak halako 12.111 konsulta egin zituzten. 2016an, abuztura arte soilik, 11.402 egin ziren.

Espezialitateen arabera, Traumatologia eta Ortopedia azpimarratu behar dira (era horretako 2.900 konsulta, 2015ean), eta haien atzetik datoz, Kardiologia (2.154) eta Digestioko espezialitatea (1.526). Era horretako 800 eta 1.000 arteko konsulta egiten dira urtean beste zenbait espezialitatetan, Endokrinologian, Hematologian eta Neurologian, adibidez.